TXOSTEN JURIDIKOA, ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIARI BURUZKOA. PLEGU HORI KONTRATUAREN KLAUSULA ESPEZIFIKOEK ETA BALDINTZA OROKORREK OSATZEN DUTE, BAI ETA ALDERDIEK BEREN GAIN HARTZEN DITUZTEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK ARAUTUKO DITUEN AGIRI TEKNIKOAK ERE. HORNIDURA-KONTRATU ADMINISTRATIBO HORREN XEDEA DA "BARIZELAREN BIRUSAREN AURKAKO TXERTOAREN 19.000 DOSI ESKURATZEA, EAEKO TXERTAKETA-PROGRAMARAKO" (15/2027-S ESPEDIENTEA)

Osasun Saileko Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritzako Aurrekontu eta Kontabilitate Zerbitzuak zuzendaritza bereko Aholkularitza Juridikoari helarazi dio administrazio-klausula partikularren plegua. Plegu hori kontratuaren klausula espezifikoek eta baldintza orokorrek eta oinarri teknikoen agiriak osatzen dute, eta klausula eta agiri horiek arautuko dituzte alderdien eskubideak eta betebeharrak, honako xede hau duen hornidura-kontratu administratiboan: **Barizelaren birusaren aurkako txertoaren 19.000 dosi eskuratzea, EAEko txertaketa-programarako** (15/2027-S esp.).

Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 319/2024 Dekretuaren 14.1.b) artikuluak Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritzari ematen dizkion eskumenak baliatuz ematen da txosten hau, zeinak zuzendaritza-zentro horri esleitzen baitio, besteak beste, Osasun Sailari eragiten dioten gaiei buruzko azterlan eta txosten juridikoak egiteko eginkizuna.

Txosten honen xedea Berariazko Klausula Administratiboen Plegua eta Plegu Teknikoa aztertzea da.

I. Administrazio-klausula zehatzen agiriari buruzko gogoetak.

Kontratuaren klausula espezifikoek eta baldintza orokorrek osatzen duten administrazio-klausula partikularren agiria kontratuaren oinarrizko dokumentua da, eta haren arabera bete behar da. Hori dela eta, eta SPKLren 122.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, gastua baimendu aurretik edo baimentzearekin batera idatzi eta onartu behar dira, eta, betiere, kontratua lizitatu aurretik, edo, lizitaziorik ezean, adjudikatu aurretik, kontratuaren alderdien eskubideak eta betebeharrak definitzen dituzten itunak eta baldintzak barne hartzen baitituzte.

Agiri partikularrak, beraz, kontratuaren funtsezko araua dira, eta, horren bidez, kontratuaren edukia zehazten da kasu bakoitzerako, eta bi alderdien prestazioak

definitzen dira. Edozein arauri aplikatzeko lehentasuna ematen dioten benetako "kontratua" da.

Hornidura-kontratu hau, kontratu legeko 21.1.b) artikuluko erregulazio harmonizatuko kontratua da.

II. Kontratuaren klausula espezifikoak eta oro har aplikatu beharreko administrazio-klausula berezien agiriko baldintza orokorrak egungo sektore publikoko kontratuei buruzko legeriara eta agiri teknikora egokitzen diren aztertzea.

Esleipen-prozedura irekia erabiliko da; izan ere, kasu horretan, jarduteko gaitasuna duen enpresaburu orok, kontratatzeko debekurik ez badu eta eskatutako kaudimena badu, proposamen bat aurkeztu ahal izango du.

Egiaztatu da Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako zuzendariak eskumena duela kontratua egiteko, Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 319/2024 Dekretuaren 14.2 artikuluan esleitzen zaizkion eskumenen arabera.

Enpresaburu lizitatzailearen kontratatzeko gaitasunari dagokionez, SPKLren 65.1 artikuluak xedatzen du honako hauek soilik kontratatu ahal izango dutela sektore publikoarekin: pertsona fisiko edo juridiko espainiar edo atzerrikoek, baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute, kontratatzeko debekurik ez badute eta kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala egiaztatzen badute edo, lege honek hala eskatzen duen kasuetan, behar bezala sailkatuta badaude. Ildo horretan, aztergai dugun administrazio-klausulen pleguko karatularen 21.2 eta 25.1 puntuetan zerrendatzen dira eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak zein bitartekoren bidez egiaztatu behar duen bere kaudimena, eta eskatutako kaudimen-baldintzak zehazten dira, kontratuaren aurrekontua eta gauzatzeko epea kontuan hartuta.

Ekonomia- eta finantza-kaudimena kalkulatzeko, SPKLren 87.3.a) artikuluan ezarritakoa hartu da oinarritzat, eta kontratista bakoitzak eduki behar duen kaudimen teknikoa zehazteko, SPKLren 89.3 artikuluan horretarako ezarritakoa hartu da erreferentziatzat.

Kontratuaren funtsezko elementuei dagokienez:

- Kontratuaren klausula espezifikoetan zehazten da kontratuaren xedea, SPKLren 28.1 artikuluan xedatutakoa betez.
- Kontratua ez dago lotetan bananduta. Arrazoia profilean argitaratu behar den justifikazio-memorian zehaztuta dago, eta kontratuaren baldintza espezifikoen 1.5 eta 20.4 puntuetan adierazita dago.

- Kontratuaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontua zehazten da eta baita kontratuaren balio zenbatetsia eta hura zehazteko modua ere, hori guztia SPKLren 100. eta 101. artikuluetan eskatutako baldintzetan.
- Prestazioaren izaera, hornidura bat eta finantzaketaren ezaugarriak kontuan hartuta, 2027eko aurrekontuetako gastuen egoera-orriaren kargura, kontratuaren klausula espezifikoetan kontratuaren iraupena jasotzen da, alderdi hori jada aipatu da, eta SPKLren 29. artikuluan xedatutakoa betetzen da.
- Izapideak aldez aurretik egiteko kontratua denez, 2027an kreditu egokia eta nahikoa izateko premian oinarritutako baldintza etengarria jasota dago.

Eskaintzak baloratzeko irizpideei dagokienez, SPKLren 145.3 artikuluan xedatutakoa betetzen da, hau da, kontratua adjudikatzeko hainbat adjudikazio-irizpide erabiliko dira, kalitate-prezio onenean oinarrituta. Esleipen prozeduran objetibotasuna bermatzeko asmoz, kontratua adjudikatzeko irizpide guztiak formula bidez kalkulatu daitezkeenak dira.

Espediente honek bete egiten ditu Kontratazio publikoan emakumeen eta gizonen ordainsari-berdintasunerako klausulak eta soldata-arrakalaren aurkako neurriak txertatzeari buruzko jarraibidearen eskakizunak. Gobernu Kontseiluaren erabakiaren bidez onartu zen jarraibide hori, eta 2019ko maiatzaren 10eko EHAAn (87. zk.) argitaratu zen.

Espedientean jasota dago kontratatu nahi den sektoreko genero-berdintasunari buruzko justifikazio-memoriaren aurretiko diagnostikoa (check-list).

Administrazio-agiriaren baldintza orokorren eranskinetan egindako aldaketei dagokienez, lizitazioan interesa duten operadoreei beren eskaintza aurkeztea errazteko egin dira, kasuan kasuko eranskinak kontratu honetara egokituz (adibidez, eskaintza ekonomikoaren eredua, etab.). Kontratu honetan aplikatzekoak ez diren eranskinak ezabatu egin dira, interesdunak ez nahasteko.

II.8 eranskinean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren prebentzio-arloko arau-hauste larriengatiko delitu edo zehapen irmoei edo berdintasun-planari buruzko eranskina sartu behar da.

II.11 eranskinean, Lehiaren Euskal Agintaritzak 2021eko azaroaren 12an egindako gomendioak jaso behar dira, lizitatzaile guztiek A gutun-azalean nahitaez aurkeztu behar duten adierazpen batekin batera.

Azkenik, kontratazio-organoak ere onartuko du preskripzio teknikoen agiria, gastua baimendu aurretik edo baimentzearekin batera, eta beti kontratua lizitatu aurretik edo, lizitaziorik ez badago, esleipena egin aurretik. Kasu honetan, Agiri Teknikoak SPKLren 124. artikuluan ezarritako arauak betetzen ditu.

Gobernu Kontseiluak 2021eko apirilaren 13an onartutako EAEko hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak aplikatuz, pleguak euskaraz eta gaztelaniaz aurkeztu dira.

Kontratuaren finantzaketari dagokionez, gogorarazten da, kontratua esleitzeko hasitako administrazio-espedientearekin batera, gastu-espedientea hasi behar dela aldi berean, halako moldez non, txostena egiten ari gatzaizkion administrazio-klausula partikularren agiria onartu ondoren edo horrekin batera, gastua baimendu behar den, Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bategina onartzen duen eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu-araubidea arautzen duen maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuaren 111.3 artikuluaren arabera.

III Ondorioak

1.- Honako hauen berri ematen da: kontratuaren klausula espezifikoak, administrazio-klausula zehatzen agiriko baldintza orokorrak eta hornidura-kontratu administratiboko alderdien eskubideak eta betebeharrak arautuko dituen Agiri Teknikoa. Plegu hori prozedura irekiaren bidez izapidetuko da, eta haren xedea da “Barizelaren birusaren aurkako txertoaren 19.000 dosi eskuratzea, EAEko txertaketa-programarako” (15/2027-S esp.).

2.- Bidezkoa da prozedurarekin jarraitzea, kontratazio-organoak baldintza-agiriak onar ditzala eskatu behar da, eta, ondoren, edo batera, gastua baimendu behar da, egokia eta nahikoa izan beharko duena.

3.- Kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da, lizitazio-iragarkiarekin batera, SPKLren 63. Artikuluak adierazten duena betez.

En Vitoria-Gasteiz, sinatzen den egunean.

GORKA GONZALEZ DE ZARATE RUIZ - 16264353H

Firmado digitalmente por GORKA GONZALEZ DE ZARATE RUIZ - 16264353H
Fecha: 2026.10.14 13:56:54 +02'00'

Fdo.: Gorka Gonzalez de Zárate Ruiz
Dirección de Régimen Jurídico, Económico
y Servicios Generales